Miren Atutxa Goikuria (1, guztira 1)
Euskera eta Hezkuntza Teknikaria / Técnica Euskera y Educación
Sinaduraren data: 25/10/2018

GALDAKAHO, AHOZ AHOKO AZOKA 2018

Klausula teknikoen agiria

Galdakaho, ahoz ahoko azoka 2018 liburu-azoka kudeatu, antolatu eta dinamizatzeko zerbitzua, hura garatzeko behar den azpiegitura muntatzea, desmuntatzea eta instalatzea barne.

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da Galdakaho, ahoz ahoko azoka izeneko liburu-azoka kudeatu, antolatu, koordinatu eta garatzea, euskara hutsean garatuko dena 2018ko abenduaren 19tik 23ra bitartera, Udalak zehaztutako tokietan, euskarazko kultura-, literatura-, musika- eta arte-eskaintza egiteko ez ezik, baita herritarren artean euskarazko produktuak sustatzeko ere.

Halaber, euskarazko edizioaren, liburuaren eta irakurzaletasunaren mundura hurbiltzeko bidea ematea ere bada asmoa, literatura eta kultura arloko era guztietako pertsonentzako askotariko programazioaren bitartez.

Guztiz hornitutako 9 etxola ezarriko dira gutxienez, binilo apaingarriz edertuak, honako jarduera hauek egiteko: erakusketak, salmenta, tailerrak, irakurzaletasuna sustatzeko jarduerak, jarduera soziokulturalak, literatura-jarduerak, liburu zein egileen sustapena, sinatze-ekitaldiak...eta guztia euskaraz.

Proiektua Galdakaoko herritarren eskari eta ezaugarrietara egokitu beharko da, baita Galdakaoko Udalaren Euskara arloak ezarritako jarraibideetara ere, plegu honetan eskatutako baldintzekin bat etorriz.

Horrez gain, plegu honen helburua da baldintza teknikoak ezartzea Galdakaho, ahoz ahoko azoka egiteko behar diren azpiegiturak, alokairu-araubidean, kontratatzeko, azpiegiturok muntatu eta desmuntatzeko zein garraiatu eta ezartzeko lanak barne.

HELBURU OROKORRA

Herritarrek euskarazko literatura-, musika- eta kultura-ekoizpena eskura izan dezaten bultzatzea, eta artistak, sortzaileak eta literatur egileak zein argitaletxeak, liburu-dendak eta abarrak batera dauden esparrua sortzea.

BERARIAZKO HELBURUAK

-Euskarazko sormenezko jarduera soziokulturalak Galdakaoko herritarren kezka eta eskarietara egokitzea.

-Adingabeek eta herritarrek, oro har, euskaraz irakurtzeko ohitura sustatzea xede horretarako jarduera eta esparru egokien bitartez.

-Galdakaho, ahoz ahoko azokaren esparrua dinamizatzea gizarte, kultura, literatura eta musika arloko jardueren eta umeentzako jardueren bitartez, besteak beste.

-Galdakaho, ahoz ahoko azokaren barruan euskarazko arte-ekoizpena sustatzea, eta galdakoztarren beraien sorkuntza bereziki nabarmentzea.

-Galdakaho, ahoz ahoko azokaren programazioa udalerriko ikastetxeek eta beste gizarte-eragile batzuek parte hartzeko helarazitako kezka eta proposamenekin koordinatzea, era horretako ekitaldien azoka-esparru

erreferente bihur dadin.

-Kontratuaren xedea behar bezala gauzatzeko egokiak diren etxola eta espazioak ezartzen direla bermatzea, baita programazioa egiteko erabilera anitzeko espazio gisa balio dutela ere.

2.- DATAK, TOKIA ETA IRAUPENA

Galdakaho, ahoz ahoko azoka Galdakaoko Mugaburu kalean eta/edo Udalak zehaztutako tokietan egingo da, 5 egunez gutxienez (2018ko abenduaren 19tik 23ra, biak barne).

Azokaren ordutegia honako hau izango da:

Goizez: 10:00etatik 13:30era
Arratsaldez: 17:00etatik 20:30era

Nolanahi ere, organo kontratugileak finkatzen duen ordutegiaren arabera egingo da zerbitzu-prestazioa, eta hura aldatzeko eskubidea ere izango du, onura publikoa kontuan hartuta eta ezarritako programazioan oinarrituta.

3.- LOTEAK ETA EZAUGARRIAK

3.1 1. LOTEA

Galdakaho, ahoz ahoko azoka izeneko Galdakaoko liburu-azoka antolatzeko behar diren azpiegiturak muntatu, desmuntatu eta ezartzeko zerbitzuak.

ETXOLAK: (9 gutxi gorabehera) 3x2 m-ko egitura modularrekoak eta lakatutako aluminio zuriz eginak. 3,00-2,80 metroko kanpoko garaiera izango dute, eta kolore zuriko melamina-estaldurazko panelak. Modulagarriak metro bateko multiploetan, fatxadan eta sakoneran, ekitaldiaren premiei erantzun ahal izateko.

Etxolen estalkia guztiz iragazgaitza izango da, eta estankotasuna bermatzen duen finkatze-sistema edukiko du; gutxienez % 10eko isuria izango du, ura etxolen atzeko alderantz bideratzeko. Estalkiaren azpian sabai aizun itxia egongo da, estalkiaren eta sabai aizunaren arteko aire-ganbera egon dadin, isolatzaile termiko modura.

Tronadura modular bidezko zorua, material hidrofugoz egina eta, bide publikoa ez higatzeaz gainera, hondakinik utziko ez duten zoru-euskarriekin. Tartea egongo da tronaduraren eta zoladuraren artean, euri-urak igaro ahal izateko. Lurzorua ezingo dute zulatu etxolak ezartzeko.

Etxolen perimetro-hormak eta fatxadako elementuak suaren kontrako materialez eginak izango dira, eta indarrean dagoen araudia beteko dute.

Etxolen fatxadan erakusmahaiak eta pertsiana bidezko ixte-irekitze sistema –edota motor elektriko bidezkoa– izango dituzte, etxolaren barnetik itxi ahal izateko, eta estankotasuna eta ura iragazten ez dela bermatzeko.

Etxolek erakusmahaiaren aurrealdean izango dute sartzeko ate baxu bat edo garaiera normaleko bat, eta segurtasun-sarraila zein giltza bereziak izango ditu bakoitzak.

Etxolen perimetrorako kristalezko moduluak, beharren arabera.

Erdian kristala duten bitrina altuak, 1x1 metroko oinarria dutenak, edukiko dituzte. Barnealdea egokiturik

izango dute liburuak, diskoak edo antzeko bestelako materialak erakusteko, eta argi zuri eta hotza edukiko dute; 5.000 lumeneko argi-intentsitatea, gutxienez, bitrina bakoitzeko.

Etxolen barnealdean 0,30 m-ko apalak ezarriko dira, hainbat alturatakoak. Etxolak barnetik komunikaturik egon ahal izango dira edo ez, beharren arabera. Etxolek gutxienez 2,60 m-ko garaiera izan beharko dute barnean, eta kaxa elektrikoa izango du bakoitzak, entxufe-oinarekin, 1.280 W-ko kontsumorako gutxienez. Etxolen argiztapena argi zuri bidez egingo da, pantaila fluoreszente edo kontsumo gutxiko lanpara bidez.
Etxola bakoitzean binilo ebakizko errotulu bat egongo da etxolaren aurrealdeko goialdean ipinita, zeina Udalak zehaztuko baitu.

ETXOLEN EREMUKO KORRIDOREKO ESTALKIA

Etxolen fatxaden aldameneko espazio estali honek 19x9 metroko neurria izango du, gutxi gorabehera, eta 2,60 metro edo gehiagoko garaiera erabilgarria barnean. Halaber, gutxienez honako ezaugarri hauek izango ditu:

Estalkia egitura modularrekoa izango da, xafla itsuz eta plaka zeharrargiz osatutako gai zurrunez egina, argi naturala barnera sartu ahal izan dadin. Ezin da bestelako materialik (olanak edo antzekoak, adibidez) erabili. Eremu zeharrargiak korridore osoaren % 50 hartuko du gutxienez.

Estalitako espazioak ezin izango du elementu bertikalik eduki estalkiaren euskarri edo berme moduan; estalkiak bere buruari eutsiko dio, beraz, eta eremu osoa guztiz garbi gelditu beharko da.

Estalkia guztiz iragazgaitza izan beharko da, eta estankotasuna bermatzen duen finkatze-sistema edukiko du, baita euri-urak kanpoko perimetrora bideratzeko behar beste isuri ere. Estalkiaren eremu osoa pantaila fluoreszentez edo beste edozein motatako argi zuri eta hotzez argiztatuta egongo da.

Hiru su-itzalgailu, dagozkien berrikuste-ziurtagiriak eta seinaleztapen-plaka homologatuak barne.

Esparruan sartzeko bi arrapala, 2x1 m-koak.

KANPOKO PABILOI MODULARRA

Eremu hau 180 m^2-koa izango da gutxi gorabehera, eta ezaugarri tekniko hauek izango ditu: arkitektura iragankorreko egitura modular bidez egindako pabiloia, paramentu eta estalki zurrunak dituena; ez da elementu malgurik (olanak, besteak beste) onartuko. Haren iragazgaiztasuna eta estankotasuna bermatu beharko dira, baita egituraren sendotasuna eta haizearekiko erresistentzia ere. Pabiloiak 3 m-ko altura izango du gutxienez barnealdean.

Fatxaden osaera egokikorra izango da, eremu batzuetan beirak jarri ahal izateko antolatzaileen beharren arabera.

Pabiloiaren estalkia guztiz iragazgaitza izan beharko da, eta estankotasuna bermatzen duen finkatze-sistema izango du. Estalkiaren azpian sabai aizun itxia egongo da, estalkiaren eta sabai aizunaren arteko aire-ganbera osaturik, isolatzaile termiko modura.

Fatxada nagusian, estalkiak kanporanzko 2 metroko hegala izango du, gutxienez.

Pabiloiak tronadura modular bidezko zorua izango du, bide publikoa ez higatzeaz gainera, hondakinik utziko ez duten zoru-euskarriekin. Behar den tartea egongo da tronaduraren eta zoladuraren artean, euri-urak igaro ahal izateko. Tronadura material hidrofugozkoa izango da, eta erraz garbitzeko moduko ageriko akaberakoa.

Zoladura zulatzerik ez da egongo.

Sarbideetan beiraz hornitutako ate bikoitza egongo da, izu-barrarekin, eta motor elektrikoz hornitutako metalezko pertsianak edukiko dituzte, ireki eta ixteko, baita giltza independentea ere.
Agertokirako 50 m^2 inguruko oholtza izango du, eskailera-mailak eta arrapala dituena. Ate eta sarrailaz hornitutako bi eremu itxi ere egongo dira, biltegirako eta ikus-entzunezkoen kontrol-gelarako.

Halaber, truss-egitura bat ezarriko da agertoki-lerrotik metro batera, haren zabalera osoan.

Erdian kristala duten bitrina altuak, 1,00 x 0,5 metroko oinarria dutenak, edukiko dituzte. Barnealdea egokiturik izango dute liburuak eta bestelako materialak erakusteko, eta pantaila fluoreszente bidezko edo beste edozein motatako argi zuri eta hotzezko argiztapena edukiko dute; 3.000 lumeneko argi-intentsitatea gutxienez bitrina bakoitzeko.

Enpresa adjudikazioduna emandako elementu guztiak zaindu eta begiratzeaz arduratuko da muntatzeko eta desmuntatzeko lanek iraun bitartean, giltzak eman arte.

AIRE-GIROTZEA

Aire-girotzeari dagokionez, haize-sorgailu bidezko edo antzeko beste aire-girotze sistema bat ezarriko da; horrekin lotuta, homologazioa eta ziurtagiria aurkeztu beharko dira, eskudun teknikariak sinatuta, eta suaren kontrako materialei eta egituraren sendotasunari buruzko indarrean dagoen araudia bete beharko da. Horrez gain, UNE EN 13782:2016 arauaren ziurtagiria eduki eta aurkeztu beharko dute.

ITC-BT-34 behe-tentsioko araudiaren arabera egin beharko da instalazio elektrikoa.
Enpresa adjudikaziodunak ezin izango ditu eskainitako zerbitzuen ezaugarri teknikoak (materiala, egitura mota, etab.) eta instalazioa aldatu Udalak aurretik adostasuna agertu gabe, eta aurkeztutako eskaintza bete beharko du ekitaldiaren garapenean arazorik ez sortzearren.

MUNTATU ETA DESMUNTATU

Agiri honetan zehazten diren azpiegituren muntatze-lanak 4 lanegunetik beherako epean egin beharko dira eta, beranduen jota, azoka zabaltzen den egunaren bezperan amaituko dira lanok. Instalazioak baldintza egokietan entregatu beharko dira, garbikuzia barne.

Adierazten diren azpiegituren desmuntatze-lanak azoka ixten den hurrengo egunean hasiko dira, Udalak besterik adierazi ezean, eta beranduen 3 lanegunetan egin beharko da.

3.2. 2. LOTEA

Galdakaho, ahoz ahoko azokaren programazioa antolatu, kudeatu, gauzatu, koordinatu eta dinamizatzea, soinu- eta argi-ekipoak alokatzea zein segurtasun- eta zaintza-zerbitzuak barne direla.

-Etxoletan argitaletxeek, liburu-dendek eta abarrek parte hartzea

Galdakaoko azokaren etxoletan parte hartu nahi duten argitaletxeen eta/edo establezimenduen kudeaketa eta koordinazioa barnean hartzen dituen proposamena egin beharko da, haur eta gazteentzako zein helduentzako euskarazko produktuen aniztasuna eta aukera handia aintzat hartuta betiere. Musikaren arloan dagoen eskariari

ere erantzungo zaio (gaur egungoa izan beharko da, azken berritasunak barne).

Parte-hartzaileen zerrenda aurkeztuko da, eta erakutsitako produktuak erakargarriak izan daitezen saiatuko dira; herritar orokorren kezka, eskari eta ezaugarrietara ez ezik, Galdakaoko Udalaren Euskara Arloak finkatzen dituen ildoetara ere egokitu beharko dira.

Liburuak eta/edo musika-produktuak sinatzeko proposatzen dituzten egileen zerrenda ere aurkeztuko dute, baita horretarako egunaren eta orduaren proposamena ere. Egileek jarduera batzuetan (hitzaldi-solasaldiak, ekitaldiak, etab.) ere parte hartu ahal izango dute.

Enpresa adjudikaziodunak kudeatu eta koordinatuko du argitaletxe eta establezimenduek etxoletan parte hartzea; hori horrela, era guztietako ikusleentzako giro erakargarri eta askotarikoa sortzen saiatuko da. Hartarako, musika-giro atsegina jarriko dute, esparru osoan, kanpoko megafonia-ekipo baten bitartez.

- *Jarduerak programatzea*

Enpresa adjudikaziodunak euskaraz irakurtzea bultzatzeko jarduera-egitarau bat burutuko du: jarduera soziokulturalak, musika, antzezlanak, olerki-emanaldi musikatuak, haurrentzako animazioa, ipuin-kontalariak, ipuin musikalak, magia, txotxongiloak, kontzertu didaktikoak, erakusketak, euskarazko idazle ospetsuen sinatze-ekitaldiak eta sustapena, ilustrazio musikala, literatur hitzaldiak, mahai-inguruak, sormen-lantegiak eta abarrak, guztia Udalaren Euskara Arloarekin elkarlanean eta ezarritako gai nagusiarekin loturik.

Horrelako ekimenak liburu-azoka zabalik dagoen egun guztietan antolatuko dira, goiz eta arratsaldez, eta udalerriko bertako gizarte-eragileen (ikastetxeak, elkarteak, ludotekak, etab.) partaidetza bultzatuko da.

Gutxieneko honako jarduera hauek egingo dira, baina beste proposamen osagarri batzuk ere egin ahal izango dira kudeaketa-proiektuan:

a) Azokari hasiera emateko ekitaldia egingo da, zenbait jarduera garrantzitsu eskainiz eta askotariko partaideekin, baita amaiera emateko beste bat ere, azokaren azken egunean.
b) Abenduaren 19, 20 eta 21eko eskola-ordutegiaren barruan ikastetxeekin elkarlanean antolatutako jarduerak aurreikusiko dira (Haur eta lehen Hezkuntzako ikasleentzako jardueraren bat eta besteren bat Bigarren Hezkuntzakoentzat, gutxienez), eta haiek guztiek izango dute parte hartzeko aukera. Unkina eta Aperribai ikastetxeei dagokienez, ikasleak garraiatzeko zerbitzua ere eskainiko da.
c) Udalerriko herritarrek parte har dezaten sustatzeko ekitaldiak eta jarduerak (musika- zein dantza-ekitaldiak, kalejirak, liburu-aurkezpenak, azoka solidarioak, txotxongiloak, bakarrizketak...) azokak dirauen egun guztietan.
d) Booktuber lehiaketa Bigarren Hezkuntzako ikasleentzat (azoka hasi aurretik), eta sariak emateko ekitaldia azokaren egunetako batean, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek parte hartuta. Barnean hartuko ditu ekitaldiaren aurkezpena, dinamizazioa, kudeaketa eta koordinazioa, parte hartzen duten ikastetxeekin aurreikusi eta hitzartutako sariak, sari-banaketa ekitaldian erreferentziako booktuberrek parte hartzea, bai eta bertaratuentzako jan-edana ere.
e) Azokaren pabiloian gai jakin baten erakusketa egitea. Euskaraz eta gaztelaniazko informazio-liburuxkak izango ditu erakusketa horrek, baita komenigarri iritzitako beste edozein euskarri ere (*rollup*ak, kartelak, biniloak eta abarrak).
f) Idazleen liburuak zein sinadura-ekitaldiak koordinatu eta aurkeztea, argitaletxeen eta hedabideen presentzia koordinatzea, bai eta azokara ospe handiko artistak, irudigileak eta idazleak gonbidatzea eta haien parte-hartzea kudeatzea ere (azokaren egun guztietan).

Jarduera osagarriak egiteko orduan literatura, poesia, autore ospetsu eta abarrekin zerikusia duten efemerideak

eta urteurrenak ospatzea hartuko da kontuan. Nolanahi ere, ekimen berritzaileak baloratuko dira.

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da jarduera eta/edo ekitaldi horiek guztiak antolatzeaz eta gauzatzeaz, eta esandako horiek egoki garatzeko behar diren langileak, materialak eta instalazioak eskainiko ditu. Behar diren soinu- eta argiztapen-bitarteko teknikoak ere eskainiko ditu, lehen mailako ekipoen bitartez, baita behar diren langile gaituak ere. Horrez gain, era guztietako mikrofonoak hornituko ditu, eta programatutako jarduerak dituen gainerako behar teknikoez arduratuko da.

Enpresa adjudikaziodunak programatutako jarduerak koordinatu eta kudeatzen dituzten langileen esku-hartzea ere kudeatuko du.

Gainera, 100 aulki tolesgarri eta pilagarri gutxienez ere eskainiko ditu, esparruaren dekorazioarekin bat datozenak, eta programatutako jardueretan erabiltzeko modukoak izan beharko direnak. Halaber, ekitaldien edo jardueren arabera behar diren mahai, besaulki edo gainerako atrezzoak ere hornituko ditu.

Jardueren, baita haien aurkezpenen ere, behar bezalako garapena, antolamendua eta, hala badagokio, koordinazioa bermatzen dituzten behar adina bitarteko material eta giza baliabide eduki beharko ditu une oro enpresak, baita kontratu hau gauzatzeak berarekin dakarren beste edozein laguntza ere.

Proposatutako jarduera bakoitza behar bezala hitzartuko da, eta enpresa kontratistak, zerbitzua eman aurretik, haren programa zehatza aurkeztu beharko du, jardueraren azalpen laburra eta bertan esku hartu behar duten pertsonen zerrenda barne.

Enpresa adjudikaziodunak, halaber, 3x2 m inguruko LED pantaila bat ere ipini beharko du. Pantaila hori eszenatokian jarriko da, euskarazko aurkezpenak, dokumentalak, bideoak, 3D-ko ipuinak eta abarrak emateko.

- *Segurtasun- eta zaintza-zerbitzua*

Baimendutako enpresak eskainiko du zerbitzu hau, behar bezalako gaitutako segurtasun-zaindarien bidez.

Armarik gabeko zaindarien bidezko zaintza egingo da, eta larrialdietako komunikazio-sistema (irrati bidezkoa, telefono mugikorra edo antzekoa) edukiko dute, hala enpresarekin nola antolatzaileekin.

Honako ordutegi hau izango dute: 20:30etik 9:00ak arte, esparruaren giltzak ematen direnetik desmuntatzeko lanak hasi arte (7 gau aurreikusten dira).

Honako lan hauek egin behar dituzte:

a) Ondasun higigarriak eta higiezinak zaindu eta babestea, eta gauza bera horietan dauden pertsonei dagokienez.
b) Delitu-ekintzak edo arau-hausteak egin ditzaten eragoztea, babestu beharrekoei dagokienez.
c) Esparruaren giltzak zaintzea, hala badagokio, eta horiek ematea baimena duten zehaztutako pertsonei.
d) Egituraren zaintzarekin zerikusia duten jokabide antisozial jakin batzuen ondoriozko ekintzak eragoztea: pintaketak, kartelak paratzea, kalteak egitea, etab. Ekintza eragoztea ezinezkoa bada, egileak identifikatuko dituzte araudiari jarraikiz egokia den moduan jokatzeko.
e) Babestu beharrekoen aurkako ekintzen ustezko erantzuleak erakunde antolatzailearen eta segurtasun-kidegoen esku berehala jartzea, baita delituen tresnak, efektuak eta frogak ere. Ezingo dituzte pertsona horiek galdekatu.
f) Segurtasun-zerbitzuak une oro bultzatu eta sustatuko ditu energia-aurrezteari, baliabide-optimizazioari, ingurumenarekiko errespetuari eta abarrei buruzko jardunbide egokiak.

3.3. 3. LOTEA

Instalazio elektrikoaren zerbitzua

Enpresa adjudikaziodunak zuzenean elektrizitate-enpresarekin kudeatu beharko du esparruaren linea elektrikoarekiko konexioa, azokaren azpiegitura osoa elektrizitatez hornitzeko, eta enpresa instalatzaile gisa egiaztatzen duen ziurtagiria edo baimena eduki beharko du.

Zerbitzua honetan datza:

- Fatxadan babes-kaxa, 160 ampereko BUC motakoa, 63 ampereko fusible kalibratuak eta hornidura-sarerako konexioa ezartzea.
- Aireko hargunea ezartzea. Aireko hargunearen instalazio elektrikoa egitea Iberdrolaren saretik, babes-kaxa orokorrean, azokaren esparruko instalazioaren babes-kaxaraino. Ondoren instalazioa kentzea.
- Instalazio elektrikoa (argia eta korronte-hargunea). Babes-kaxa orokorra ezartzea zirkuitu guztietan, bi hargune hauekin: 63 ampereko Cetac 3P+N+T eta 32 ampereko 3P+N+T.
- Etxolak elikatzeko instalazio elektrikoa egitea, etxola bakoitzaren barneko instalazioa 1280 W-koa izango da gehienez.
- Ekitaldien areto modularra elikatzeko instalazio elektrikoa egitea; 3.200 W-ko kontsumorako gehienez.
- Ezarritako bitrinen argiztapena elikatzea.
- 2 berokuntza-konbektoretarako elikadura elektrikoko zirkuitua egitea, eta beroriek esandako zirkuitura konektatzea.
- Instalazio Elektrikoaren Ziurtagiria idatzi eta Eusko Jaurlaritzaren Industria Sailean oniritzia ematea.
- Hargune elektrikoa eta Iberdrolaren kontratua egiteko kudeaketak.
- Teknikari talde bat 5 orduz gelditzea azokaren lehen egunean.
-Izan litezkeen gertakarien aurrean bi ordu eta erdiko tartea aurreikusten da erantzuteko.
-Zehazten diren instalazio guztiak azokaren irekiera-egunaren bezperan (goizean zehar) egin beharko dira.
-Instalazio elektrikoen langile arduradunak gutxienez azken urte bietan antzeko ezaugarriak (azokak, espektakuluak, kontzertuak, etab.) dituzten 10 ekitalditan eskarmentua egiaztatu beharko du. Horretarako erantzukizun-adierazpen bat aurkeztu beharko du.

Enpresa adjudikazioduna arduratuko da, halaber, instalazioen gainean behar diren izapide eta kudeaketa guztiez (instalazio-buletinak, etab.), baita instalazioak mantentzeaz eta laguntza teknikoaz ere, kontratuak iraun bitartean. Horrez gain, izan litezkeen matxuretan behar diren ordezkapenak eta konponketak egingo ditu, eta bere gain hartuko ditu, orobat, garraioei, zamalanei zein muntatu eta desmuntatzeko lanei dagozkien gastu guztiak. Material guztia ere bilduko du.

Era berean, adjudikaziodunak Udalaren langile teknikoei, enpresa instalatzaile gisa egiaztatzen duen ziurtagiri edo baimenaz gain, ekipo elektrikoei dagozkien instalazio-buletinak ere erakutsiko dizkie. Kable-instalazioa eta gainerako ekipamendua behar bezala babestuko du esparruan, istripuak ahal den neurrian eragoztearren, eta erantzukizun zibileko poliza baten bidez aseguratuko ditu gerta litezkeen gorabehera guztiak.

3.4 4. LOTEA

Galdakaho, ahoz ahoko azoka izeneko liburu-azoka apaindu eta edertzeko zerbitzua

Azoka-esparru osoak dekorazio erakargarria izango du, eta irudi berritzaile eta originala helaraziko du.

Jarduerak egiten diren pabiloian lore-apaindura ezarriko da, azokaren irudi orokorrarekin bat etorriko dena. Landareek apaindu beharreko eremuen araberako bolumena edo kopurua izango dute.

Memoria teknikoan Euskara Arloak 2018ko ediziorako proposatutako gai orokorrarekin (Elikadura eta sukaldaritza) zein euskarazko irakurtze eta literaturarekin zerikusia duten dekorazio- eta apaindura-elementuen proposamenak jasoko dira.

Diseinuaren originaltasuna eta erakargarritasun bisuala baloratuko dira: diseinu-euskarri eta -osagai berritzaileak, dekorazio-multzoak eta irudi fresko eta originala ematen duen beste edozein elementu.

Gutxienez, honako elementu hauek eskatuko dira:

a) Pieza trokelatuz photocall bat diseinatzea eta egitea (3x5 m gutxi gorabehera) Euskara Arloak adierazten duen gaiarekin.
b) 8 binilo (1x1x2,80 m.): diseinatu, egin eta jartzea azoka-esparruan sartzeko zutabeetan.
c) Binilo bat (10x2 m): diseinatu, egin eta jartzea azokaren pabiloiaren albo batean. Euskara Arloak adieraziko du gaia.
d) 12 binilo apaingarri (95 x 76 cm), zenbait tokitan elementu apaingarri gisa jar daitezen.

4.- <u>KONTRATUAREN PREZIOA</u>

Kontratuaren prezioa hau izango da: 54.958,68 € + 11.541,32 (% 21eko BEZa), 66.500,00 € (BEZa barne), alegia. Honako hauek dira lote bakoitzarentzat ezarritako prezioak:

1. lotea

Galdakaho, ahoz ahoko azoka izeneko Galdakaoko liburu-azoka antolatzeko behar diren azpiegiturak muntatu, desmuntatu eta ezartzeko zerbitzuak.

23.140,50 € + 4.859,50 € (% 21eko BEZa).
GUZTIRA: 28.000,00 € (BEZa barne).

2. lotea
Galdakaho, ahoz ahoko azokaren programazioa antolatu, kudeatu, gauzatu, koordinatu eta dinamizatzea, soinu- eta argi-ekipoak alokatzea zein segurtasun- eta zaintza-zerbitzuak barne direla.

22.314,05 € + 4.685,95 € (% 21eko BEZa).
GUZTIRA: 27.000,00 € (BEZa barne).

3. lotea
Instalazio elektrikoa

4.545,45 € + 954,55 € (% 21eko BEZa).
GUZTIRA: 5.500,00 € (BEZa barne)

4. lotea
Esparrua apaintzea eta edertzea

4.958,68 € + 1.041,32 € (% 21eko BEZa)
GUZTIRA: 6.000,00 € (BEZa barne)

5.- FINANTZAKETA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, finantzaketa aurreikusita dago aurtengo aurrekontuaren gastuen egoera-orriaren 07.3351.227.99 aurrekontuko partidaren kontura.

6.- ORDAINTZEKO MODUA

Ekitaldia hasi aurretik gastuak ordaindu ahal izateko, ordainketa honela egingo da:

-Adjudikazioaren guztizko zenbatekoaren % 50, kontratua sinatzean eta dagokion faktura egin eta aurkeztu ondoren.
-Gainerako % 50, zerbitzu-prestazioa amaitzean, dagokion faktura aurkeztu eta Kudeaketa Arloak egindako lanen emaitzak egiaztatu ondoren.

7.- ZERBITZUA EMATEKO BETEBEHAR TEKNIKOAK

OROKORRAK

Enpresa adjudikaziodunaren kontura izango dira kontratatutako zerbitzua guztiz egiteko behar diren gastu guztiak: kontratua prestatu eta formalizatzeko izapideak, material eta instalazioak, bitarteko instrumentalak, eskulana, Gizarte Segurantza, tributuak, era guztietako erantzukizun eta aseguruak, baita enpresari dagozkion era guztietako gainerako karga eta betebeharrak ere, behin betiko adjudikazioa egiten denetik bere gain hartuko dituenak, eta kontratuaren eta lizitazioan parte hartzearen ondorioz sortzen den beste edozein.

Enpresa adjudikaziodunak kontratua behar bezala garatzeko eta betetzeko beharrezkotzat jotzen diren zerbitzuak eskaini beharko ditu; hala nola lan-bileretara edo informazio-bileretara joatea, eta ez du lan horiek egiteagatik aparteko ordainsaririk jasoko. Betebehar horrek bermealdia amaitu arte iraungo du.

GIZA BALIABIDEAK

Enpresa adjudikaziodunak une oro izan beharko du behar bezalako garapena, desmuntatzea, antolaketa zein koordinazioa egiteko eta kontratu hau gauzatzeak dakarren beste edozein laguntza emateko behar beste langile.

Enpresa adjudikaziodunak zerbitzua eskaintzeko behar diren langileen kostu guztiak hartuko ditu bere gain, eta ez da inola ere lan-harremanik egongo Galdakaoko Udalaren eta langile horien artean, izatekotan, enpresa adjudikaziodunaren mende egongo baitira. Enpresak nahitaez bete beharko ditu lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta garbitasunaren arloan indarrean dauden legezko xedapen guztiak.

Horrenbestez, enpresa adjudikaziodunak baino ez du zehaztuko zenbat langile behar dituen. Nolanahi ere, eman beharreko zerbitzuak behar den denboran eta moduan egiteko gaitasuna duela erakusten duen giza taldea eduki beharko du.

Galdakaoko Udalak ez du erantzukizunik –ez zuzeneko, solidario edo subsidiariorik– izango enpresa adjudikaziodunaren lan-betebeharrak betetzeari dagokionez, ezta lan-harremanak amaitzeak, gertatzekotan, eragin ditzakeenei dagokienez ere, ez kontratu honek iraun bitartean, ezta amaitu ondoren ere, eta enpresa adjudikaziodunak hartuko ditu bere gain haren ondoriozko ondorio juridiko laboral guztiak.

Galdakaoko Udalak, enpresa adjudikaziodunarentzat zerbitzuak eskaintzen dituzten langileei dagokienez, ez du

antolatzeko edo zuzentzeko ahalmenik izango, eta ez du harreman juridiko laboral, zibil edo administratiborik izango haiekin.

MEMORIA

Adjudikaziodunak amaierako memoria bat egin beharko du, kontratuak barnean hartzen dituen prestazioen ebaluazio orokorra jasota. Memoria horretan, besteak beste, honako alderdi hauek jasoko dira:
-Emandako zerbitzuaren deskribapena.
-Izandako gorabeherak, egonez gero.
-Zerbitzu-prestazioa etorkizunean hobetzeko iradokizunak eta proposamenak.
-Egindako zerbitzuaren prestazioaren berri ematen duen argazki-erreportajea (formatu digitala).

Dokumentazio hori idatziz eta formatu digitalean egingo da, eta Euskara Arloari eman beharko zaio.

JABETZA INTELEKTUALEKO ESKUBIDEAK

Kontratuaren barruko lanen ondoriozko copyright eta jabetza intelektualeko eskubide guztiak Galdakaoko Udalaren jabetza baino ez dira izango, eta alderdiek dokumentu egokia emango dute, behar denean, jendaurrean horren berri behar bezala jasota gera dadin.

KONFIDENTZIALTASUNA

Kontratatutako zerbitzuei dagokienez, enpresa adjudikaziodunak ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekoak izango dira. Hala, horien nortasuna eta sekretua gorde beharko da. Adjudikaziodunak kalte-ordaina eman beharko die Galdakaoko Udalari eta isiltasun profesionalaren betebeharra haustearen ondoriozko kalte-galerak jasan dituzten pertsonei.

ARDURADUNA IZENDATZEA

Enpresa adjudikaziodunak arduradun bat izendatu beharko du zerbitzuaren gaineko guztiari dagokionez. Arduradunak erabateko prestasuna izango du beti, eta ondorioz, ohiko lan-ordutegitik kanpo erantzun beharko die kontratatutako beharrei, eta une oro harremanetan jartzeko moduan egongo da horretarako emango duen telefono mugikorraren bitartez.

8.- ZEHARKAKO LERROAK

Zeharkako lerroak izango dira kontratatutako zerbitzuak garatu eta sustatutako jarduera guzti-guztietan agertu behar diren horiek.

8.1 HIZKUNTZA-ESKAKIZUNAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 6. artikuluan finkatutako hizkuntza-ofizialtasun bikoitzeko araubideari lotuta dago; euskararen erabilpena arautzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta berau garatzen duen araudiak erregulatzen dute hori.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna.

Enpresa adjudikaziodunak euskaraz aritzeko eta komunikatzeko gaitasuna duten behar beste langile bideratu beharko ditu herritarrekin harreman zuzena izatea dakarten funtzioak betetzera.

Hizkuntza-paisaia.

Errotuluak, seinaleztatzeak eta gainerako komunikazio orokorrak piktograma baten bidez egingo dira, euskarazko azalpen-mezua ondoan dutela, beharrezkoa bada.
Piktogramaren bidez ezin bada egin, euskaraz egingo dira mezu ezagunak eta ulergarriak direnean.
Aurreko bi neurri horiek aurrera eramaterik ez balego, hizkuntza bietan egingo da, euskara lehenetsita, Galdakaoko Udalaren Euskara Zerbitzuak adostasuna eman ondoren.

Era berean, kontratuaren xede diren dokumentu idatziak, memoriak, informazio-zirkularrak, gutunak edo bestelako lanak, Udalari, erabiltzaileei, herritarrei emateko eta/edo jendaurrean jartzeko badira, euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira. Halere, Euskarak izango du lehentasuna, formari eta/edo tokiari dagokionez, baina euskara hutsez horietatik zein egin daitekeen aztertzea alde batera utzi gabe.

Euskarazko testuen kalitatea bermatzearren, Galdakaoko Udalaren Itzulpen Zerbitzuak gainbegiratuko ditu hedapen handiko testuak eta behin eta berriz erabiliko direnak.

Herritarrekiko erabilera.

Galdakaoko Udalak onartutako hizkuntza-irizpideekin bat etorriz, erabiltzaileei harrera euskaraz emango zaie lehenik. Herritarrek hizkuntza aukeratzeko eskubidea izango dute beti.

Kontratistak behar beste bitarteko material eta giza baliabide bideratu beharko ditu zerbitzuaren hartzaileei harrera, informazio eta komunikazioa une oro euskaraz egin ahal izateko.

8.2. BERDINTASUNA

Galdakaoko Udalak generoaren arloan ezarrita dituen irizpideak nahitaez bete beharko ditu kontratazio honek.

Horrenbestez, genero-ikuspegia une oro hartu beharko da kontuan kontratatutako lanaren garapenean.

Kontratuaren ondorioz sortzen diren dokumentazio, idatzi, publizitate, ohar, abisu eta/edo materialetan hizkuntza ez-sexista erabili beharko da, emakumeenganako diskriminaziozko irudi oro saihestuko da eta berdintasun-balioen bidez sustatuko dira parte-hartze orekatua, aniztasuna zein erantzunkidetasuna.

Halaber, kontratuaren diseinu eta gauzapenean genero-ikuspegia ere jaso beharko da haren diagnostikoari, helburuei, jarduerei eta ebaluazioari dagokienez. Ebaluazio-txostenek genero-inpaktuari buruzko atala ere izango dute, generoaren araberako adierazleak eta datuak barne